

hó

Alhóndiga Bilbao

SESBREN 50 URTE, DMITRI BALTERMANTSEN ARGAZKI-MAKINAREN ARABERA

[1939-1989]

Armada Gorriko Baltermants kapitaina Moskuko Unibertsitateko Mekanika eta Matematika Fakultatean graduatu eta Akademia Militarreko Matematika irakaslea izan zen; 1939an lortu zuen bere lehenengo argazkilari-lan profesionala, 'Izvestia' egunkari sobietar nagusirako. Tropa sobietarrak Mendebaldeko Ukrainara iritsi ziren unea argazkitan hartzera bidali zuten. Eraitza hain izan zen ikusgarria, ezen egunkari sobietar nagusi eta eragin handikoenak argazkilari lanpostua eman baitzion. Gutxi aldatuko zuten militar graduko karrera akademikoaren promesa distiratsua erreportari grafikoaren bizimodu nomadaren truke; Baltermants-ek, ordea, zalantzarik gabe hartu zuen erabakia.

1939 urteak aldaketa estilistiko handia ekarri zuen sobietar kulturean. 30eko hamarkadaren erdi aldera botere komunistak ezarri zuen errerealismo sozialistak birtualki lekuri gabe utzi zituen gainerako joera estetikoak artearen eremu bakoitzean, baita argazkigintzan ere, eta piktorialismoa, modernismoa eta erreportajea aldi berean bizi ziren. Dmitri Baltermants-ek egoki bete zituen aro berriaren eskakizunak, egindako lehenengo argazki erreportajeekin. Hala ere, atzean zeukan abangoardia sobietarraren garai paregabea, Aleksandr Rodchenko, Vladimir Maiakovski, Vsevolod Meyerhold, Sergei Eisenstein eta abarrek ordezkatzeko zutena. 1962an, hamalau urte zituela, 'Izvestia' egunkarirako tipografo lanetan

hasi zen, eta zine-proiektari eta arkitekto nahiz argazkilari profesionalen laguntzaile gisa ere jardun zuen. 1941eko ekainetik aurrera, Baltermants 'Izvestia' rako gerrako korrespontsal bihurtu zen, eta Mosku, Krimea eta Stalingradoko bataillen berri eman zuen. 1943an, editore batek egindako akatsaren erruz, haren argazkiei okerreko tituluak ipini eta inprimatzera eraman zituzten oharkabean. Zigor-batailoi batera eraman zuten eta ozta-ozta irten zen bizirik. Zauri larri bati esker 'erreskatatu' zuten, baina ia-ia hanka galdu zuen. Ospitalean hartutako tratamenduaren ostean, 1944an, frontera itzuli zen argazkilari lanetan jarduteko; baina oraingoan ez zuen 'Izvestia' rako lan egingo, armadaren egunkari baterako baizik, 'Na razgrom vraga' rako hain zuten, eta Poloniako eta Alemaniako operazio militarren argazkiak egingo zituen. Haren gerrako argazki gehienak ez ziren argitaratu Kruscheven garaiko 'urtzarora' arte; eta 'Grief' (Nahigabea) famatu hura, mundu osoan ezagun egin zuena, 1975ean inprimatu zen lehenengo aldiz SESBn, argazkia egin eta hogeita hamar urte geroago.

Frontetik itzuli zenean, dominaz beteriko beterano gisa eta milaka negatibo eta ehunka lan inprimatuta, Dmitri Baltermants lan bila hasi zen, baina alferrik. Orban handia zen zigor-unitatean egon izana, eta gainera jatorri juduak egunkari sobietarren ateak ixten zizkion, baita bere obra miresten zutenena ere. Azkenean, Aleksei Surkov poe-

tak argazkilari lanetarako kontratatu zuen, ez arriskurik gabe. 'Ogoniok' en editore burua zen, milioika ale saltzen zituen aldizkari ilustratu nagusiaren burua. Baltermants-ek aldizkari hartantxe egin zuen lan 1990ean hil zen arte; 1965etik, argazki sailaren zuzendaria izan zen.

Baltermants-ek bere karrera profesionalari ekin zionean, SESB 'altzairuzko hesiaren' bestaldean zigilatzen hasita zegoen, eta arte sobietarra mundutik isolatuta gelditu zen. Garai hartan, argazkilaritza, arte herrikoaren forma errespetatua izatetik makina ideologikoaren morroi izatera pasatu zen, eta bere izaera artistikoa galtzeko zorian egon zen. Gutxi izan ziren, Baltermants-ek bezala, etxean nahiz kanpoan eta ia mende erdian, arrakasta izan zuten argazkilariak. Errusian, 'Ogoniok' en milioika irakurlek aldizkari horren azalean agertzen ziren haren argazkiekin apaintzen zituzten beren etxe komunitarioetako horma goibelak. SESBetik kanpo, Baltermants-ek nazioarteko erakusketetan hartzen zuen parte, eta munduko argazki-lehiaketa askotako epaimahai ospe-tsuetan egon zen, noiz eta atzerrira joateko ideia bera sobietarren izate fisiko eta mentaletik urrun zegoen garai batean.

Estandar sobietarren arabera Baltermants-en ibilbide artistikoak izugarriko arrakasta izan bazuen ere –argazkiak egiten, argitaratzen eta erakusketak nonahi egiten jarraitu zuen, eta atzerrian lan egiteko baimena zuen–, ez zen inoiz argazkilari sobietarra izan. Bere gaitasun profesional bikainak eta konposiziorako zeukan zentzu apartak –Rodchenkoren konposizio diagonalak asmatu bazuen, Baltermants 'matematikaria' guztiz trebea zen konposizio horizontalean–, eta berezkoa zuen aristokrata izaera horrek artista kosmopolita burujabea izateko aukera eman zioten; harreman normalak zituen erregimen sobietarrarekin eta ez zuen inoiz inoren kontrako mendekurik hartu nahi izan. Bere irudirik lirikoan ere objektutik urruntzea lortzen zuen. Horregatik, haren lanik gehienak historia sobietarraren argazki-artxiboa ez ezik, etorkizunaren zain dagoen garai horren metafora filosofikoa ere badira.

Baltermants argazkilari bikaina zen fronteko erreportajetan, sobietar herriaren heroi-lanak eta lorpenak goratzen zituzten irudiak eszenaratzen edo erdi eszenaratzen, baina baita paisaietan edo erretratuetan ere. Ez zion muzin

egiten 'collageaz' baliatzeari, eta hodei astunak sartzen zituen gerrako argazkietan, kameraz harrapatzen zituen gertakarien tragedia areagotzeko. Sobietar argazkigintzan ukituak erabiltzen ziren historian agertzea nahi ez zen figurak ezabatzeko. Baltermants-ek alderantziz egin zuen: nahita luzatzen zuen buruzagien garaiera, Alderdi Komunistako 'VIP' en figurak itsasten zituen Mausoleoko argazkiaren aurreko plataforman, ospakizunetan buruzagi sobietar handiak ilaran jartzen ziren tokian. Gero, 'collagea' fotografiatzen zuen, eta horrela, bere 'konposizio idealen' bidez, Stalinen gertuko jarraitzaileen maila ordenatzen zuen, elkarren lehian ibiltzen baitziren 'herriaren buruzagiaren' ondoan lekurik onena nork lortuko. Behinola, Stalin ohartu zen argazki horietan zerbait oker zegoela, eta azalpenak eskatu zituen. Zorionez, ondorio txarrik gabe konpondu zen arazoa.

Politikarien erretratuek atal berezia osatzen dute Dmitri Baltermants-en obran. Sobiet Batasuneko Alderdi Komunistako idazkari nagusien erretratuek egin zituen: Stalin eta Kruschev, Brezhnev, Andropov, Chernenko eta Gorbachev. Menekoaren beldurrik gabe, ironiarik eta gupidarik gabe begiratzen ziren sobietar buruzagiei. Gizon librearen begiekin ikusten zituen, protokolo kontuak baino areago momentu sinbolikoak atzematen zekiena, une hori gorpuzten zutenen nortasuna erakusten zuten momentuak, eta nortasun horren bidez adierazten zen garaia.

Baltermants kontziente zen errusiar argazkigintzaren abangoardiak eta munduko argazkigintzak, oro har, utzitako ondareaz. Harremanetan egon zen Henri Cartier-Bresson, Robert Doisneau, Marc Riboud, Joseph Koudelka eta hogeigarren mende bukaerako beste zenbait maisu handirekin. Alde batetik, gizon sendo, argi, jakintsu, ausart eta dotore honek trebetasunez sortu eta babestu zituen sobietar erregimenaren funtsezko mitoak, hain zuzen ere, munduko herririk sendoena eta zoriontsuena zelakoari buruzkoak. Bestetik, modurik zakarrenean biluztu zuen mito horien errealitatea, bere argazkietan nabarmenduz gizakiak ohikoak dituen nahigabeak eta pozak, ez muga geografikorik ez egitura sozialik eza-gutzen ez dutenak.

Olga Sviblova

Moskuko Argazkigintzaren Etxeko Museoren zuzendaria

Antolatzaileak



www.mdf.ru

Errusiar Federazioko Kultura Ministerioa
Moskuko Gobernuak
Moskuko Kultura Saila
Moskuko Argazkigintzaren Etxeko Museoa

Espainia-Erussia Biurtekoaren baitan

